

KANALAK

Gure arteko komunikazio bideak azkarrak eta errazak izango dira. Gure web orriaren bidez informatuko dizuegu non kokatuko ditugu kaxak han utzi dezazuen donatu nahi duzuen.

Kaxa bakoitzean bereiztuko dugu arropa, janaria eta jostailuak non ipini behar diren.

Jasotzen diren donazio guztiak horretarako prestaturik dagoen almazen nagusi batera eramango ditugu eta astean behin jasotakoa lehen aipatutako erakundetara banatuko ditugu eurek zabal dezaten beharra gehiena duten pertsonen artean.

Zure donazioa diruan bada bi kontu korrente ditugu bertan sar dezazuen nahi duzuen kopurua. Ongi etorria izango da edozein kantitate.

Ekintza hauek ahal eta jende gehienaetara iritsi daitezzen Gipuzkoako herritan iragarkiak jarriko ditugu jakinarazten zein garen eta zein den gure web orria. Aldez aurretik eskertzen dizuegu zuen borondatea, zuen ahaleginak eta zuen partehartzeak. Denon artean aurrera aterako ditugu gaur egun bizitzen ari garen momentu latz eta gogor hauek.

